

# PRO GRA MA



Goirizelaia

*Errektoretzarako hautagaitza.*  
2012ko abenduaren 4a  
UPV/EHU

[www.goirizelaia.eu](http://www.goirizelaia.eu)

# AURKIBIDEA

1. Sarrera: helburu nagusiak .....	3
2. Ikasleak, gure izateko arrazoia .....	8
3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak .....	10
4. Irakasleak eta ikertzaileak .....	12
5. Graduen eskaintza irekia eta berritzailea .....	14
6. Nazioartera begira erakargarria den graduondoko eskaintza, gure ingurune ekonomiko eta sozialera bideratua .....	15
7. Unibertsitate ikertzailea .....	16
8. Ezagutza-transferentzia gizartearen zerbitzura .....	18
9. Euskararen eta euskal kulturaren unibertsitatea .....	20
10. Mundura irekita dagoen unibertsitatea .....	21
11. Unibertsitate konprometitu eta arduratsua .....	22
12. Unibertsitate atsegina eta hurbila .....	23
13. Campus biziak .....	25

# 1. SARRERA: HELBURU NAGUSIAK

2008. urtean inspirazio akademikoa zuen proiektu bat aurkeztu genion unibertsitate-kidegoari, ikuspegi instituzionala, berritzailea, sentsibilitate ezberdinen integratzailea eta ilusioz eta konfiantzaz beterikoa; etorkizunean aurrera egiteko beharrezko egonkortasuna eskaintzen zuen proiektua. Lau urte hauetan egitasmo hark markatutako bidea ibili dugu, gure unibertsitatea berritzen eta nazioartean ezagutzera ematen, eta gizartean egiazko erreferentzia-puntu bat izatera iritsi gara.

Hauteskunde hauetan unibertsitate-kidegoari aurkeztzen diogun hautagaitza ilusioz beterik dago eta konprometitua euskal unibertsitate publikoarekin, berezko hezkuntza-eredu duena, ikertzailea, erakargarria, zorroztasunez kudeatua, sozialki erantzulea, erreferentzia-puntua euskal gizartearentzat eta nazioartean onarpena duena.

Jadanik 32 urte pasatu dira UPV/EHU sortu zenetik. Unibertsitateak ere bilakaera izan du, eta gure inguruneak ere bai. Funtsezko une batean gaude unibertsitateen etorkizunerako eta gure herriaren etorkizunerako.

Krisi sakona bizi dugun honetan, funtsezkoa da euskal gizarteak bere unibertsitatea erakunde aitzindari gisa ikus dezan, sendoa, erreferentzia-puntua gizartean eta gure herrialdearen etorkizuneko garapenean konprometituta.

Ezagutzaz eta esperientziaz gidatutako unibertsitate bat behar dugu, akordioetara iristeko gaitasun frogatua duena, erabaki estrategikoak hartzeko, guztiei entzuteko eta talde-lana bultzatzeko gai. Urrats irmoak emango dituen eta erantzukizun instituzionalez jokatu duen unibertsitate baten beharra dugu.

UPV/EHUK eginkizun erabakigarri bat du datozen urteetan Euskal Herriaren garapen sozial eta ekonomikoan. Baina, gainera, aurrea hartu behar dugu. Prestakuntza, ikerketa, berrikuntza eta transferentzia, lau arlo horiek dituzten beharretan pentsatzeko unea da, horiei erantzun beharko baitiegu 15 urte barru eta, horretarako, gaur bertan ekin behar diogu lanari.

Ausardia eta irudimen-dosiak erabiliz jokatu behar dugu, UPV/EHU etorkizuna baita eta gure ekarpena ezagutzan oinarritutako giza kapitala sortzeko zutabeetako bat da, bermea etorkizun hori eraikitzeko, beharbada, berme bakarra.

Norbanakoen eta gizartearen aurrerabidean eginkizun funtsezko bat jokatzera deituta gaude, Euskal Herriak enplegua, hazkunde soziala, ekonomikoa eta ongizatea sortzeko behar duen goi-mailako prestakuntzako ezagutzan oinarritutako giza kapitala sortuz.

Irakaskuntzatik, ikerketatik, kritikatik, iritzi publikoaren eratzetik, arte- eta literatura-sorkuntzatik diharduen aldaketa-motor bat gara, euskal gizartearen egunetik egunera dinamizatuz eta aktibatuz.

Horregatik aurkeztzen dugu geure burua. Beharrezkoak diren ilusioa eta kemena dugu unibertsitate hau egiten jarraitzeko eta, ondorioz, etorkizuna lantzen jarraitzeko datozen lau urtean, gure iritziz, izango ditugun erronka handiei aurre egiteko:

## **Ikasleekin batera eta ikasleei begira eraikitako unibertsitate bat**

Gure prestakuntza-eskaintza eta gure hezkuntza-ereduaren etengabeko hobekuntzaz gainera, hiru ideia bultzatu nahi ditugu: gizarte-konpromisoa, enpleguaren babesa eta parte-hartzea. Unibertsitate-kidego osoari zabalduz ikasleak hartu eta entzuteko beharra, bai eta ikastegietan nahiz campuseko zerbitzuetan izan ditzaketen zalantzak ebazteko eta galderei erantzutekoa ere; horretarako komunikazio-bide berriak, gaur egun horren ohikoak direnak gazteen artean, ezarriz.

Gure hautagaitzak unibertsitate hau eraikitzen jarraitu nahi du ikasleekin batera, haien parte-hartzea bultzatuz unibertsitateko jarduera guztien antolakuntzan eta plangintzan, horrek, zalantzarik gabe, ekarri handia egingo baitio gure unibertsitateari.

## **Bikaintasunezko irakaskuntza eta ikerkuntzarako funtsezkoa den Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen garapena eta gogobetetzea bilatzen duen unibertsitate bat**

Unibertsitateak egunetik egunera aurrera egiten du Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen eguneroko lanari eta ahaleginari esker. Krisiak eta indarrean dauden lege-xedapenek eragina izan arren, enplegua sortzen jarraitu dugu, eta aurrera egin dugu lan-baldintzak hobetzeko. Hala eta guztiz ere, UPV/EHUK defizit nabarmena du AZP arloan bere ikastegi, laborategi, sail eta zerbitzuetan.

Administrazio eta Zerbitzuetako gure Langileek egun oro unibertsitateari egiten dioten ekarpen bikaina baloratzen badakigu, eta lanean jarraituko dugu kalitatezko enplegua sortzen jarraitzeko.

Administrazio eta Zerbitzuetako Langile kualifikatuak, motibatuak eta lan-baldintzekin pozik daudenak izatea beharrezko baldintza da gure unibertsitatean irakaskuntza- eta ikerketa-bikaintasuna izan dezagun.

## **Irakasleen eta Ikertzaileen ibilbide profesionalaren garapena babestu eta sustatzen duen unibertsitate bat etorkizunaren alde apustu egiten duen unibertsitatea da**

Unibertsitateak, erantzuteko dituen erronkei aurre egin ahal izateko, beharrezkoa du bere Irakasleak eta Ikertzaileak erakundearekin eta herriaren garapenarekin konprometituta egotea, gero eta ikertzaile eta irakasle hobeak izatea, ikerketak eta irakaskuntzak kitzikatzen dituztenak, metodologia aktiboen eta hezkuntzan erabiltzen diren teknologia berrien ezagutzaile direnak.

Horretarako, lanean jarraituko dugu, besteak beste, honako hauek babestu eta bultzatzeko: sustapena, ibilbide profesionala, irakasleen kidegoetarako sarbidea eta kontratazio mugagabea, baita lan-taldearen gaztetzea eta ikertzaile eta irakasle talentudunen erakarpena ere.

Irakasle eta Ikertzaile kualifikatuak, motibatua eta gogobeteak izatea ezinbesteko baldintza da gure unibertsitateko irakaskuntza- eta ikerketa-bikaintasunerako.

## **Ezagutzan oinarrituriko goi-mailako prestakuntza daukan giza kapitala sortzen duen unibertsitate bat**

Gure herriak ikertzaile prestatuak eta ingurunearen beharrekiko sentiberak behar ditu. Alde horretatik etorkizunean gure ingurune ekonomiko eta sozialak izango dituen beharretan pentsatuz, gure herria eraikitzen jarraitzeko doktoreen prestakuntza oinarritzkoa da. Helburu hori erdiesteak eskatzen du kate-maila guztiek -“gradu, graduondoko, doktorego, gizartea”- modu koordinatuan eta harmonia ezin hobean funtziona dezaten. Horregatik, gogoeta bateratu bat planteatzen dugu unibertsitate-kidegoarekin eta eragile sozial eta ekonomikoekin, Ikertzaile kualifikatuak sortzarren egin beharreko apusturik onena egin ahal izateko.

Master eta doktoregoko eskolen egitura bat diseinatu eta garatzeko konpromisoa hartzen dugu, baita 2025. urtean Euskal Herriaren behar ekonomiko eta sozialei erantzungo dien ikertzaileen prestakuntza-eskaintza bat ere.

Gure graduen egiaztatzeen berritzeak aukera paregabea eskaintzen digu egungo gradu-eskaintza ebaluatu eta hobetzeko; horrela, ezagutzan oinarritutako giza kapitalaren sorrera-katearen lehen mailan ainguraleku sendoa ezarriko dugu.

Azkenik, etengabeko prestakuntzaren arloan politika arin, malgu, erakargarri eta erantzulea diseinatu eta ezartzeko konpromisoa hartzen dugu. Erakunde sozialekin, enpresekin eta beste antolakuntza mota batzuekin lankidetzan jardun behar dugu, gure ekoizpen- eta gizarte-egiturako giza kapitala sendotzeko.

## **Nazioartean ezagutza duen unibertsitate ikertzaile bat**

Gaur egun, UPV/EHU Euskal Herriko eragile ikertzaile garrantzitsua da. Gure ekoizpen zientifikoak gure herriaren guztizkoaren % 67 gainditzen du. Ikerketak eguneroko apustua izan behar du. Nazioartean onarpena duen unibertsitate ikertzaile baten kide izateak irakasleen ekoizpen zientifikoa hobeto zabaltzen du. Herriaren zerbitzura dagoen eta nazioartean onarpena duen ikerketaren alde apustu eginez jarraitzen dugu. Hauteskunde-egitasmo honetan ideia berriak aurkezten ditugu, gure sormen osoa lankidetzara mota emankoragoetara bideratzeko.

Ekarpen berritzaile bat egingo dugu eranstearen alde, inguruneko eragile guztiekin batera lan egitearen alde. Gure ikerketa taldeei eta Prestakuntza eta Ikerketa Unitateei (PIUak) ematen diegun babes-politika berrestez gainera, urrats bat haratago joan nahi dugu. Ezagutza Poloak sortzearen alde gaude, lankidetzara sistematiko eta diziplina anitzeko gune gisa ikerketaren garapenean, eta sortutako ezagutzagatik edo egindako berrikuntzagatik bikaintasuna eta nazioarteko onarpena bilatuko dutenak. Ideiatik gizarte-ongizatera dagoen igarobidea erraztu nahi dugu, baliabideak, gaitasunak eta ikerketa-zerbitzuak optimizatuz, Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campuseko proiektuari esker eraiki nahi dugun Unibertsitateko inguruko gune osoan.

## **Bere gobernantza-eredua eta giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa optimizatzen duen unibertsitate bat**

Unibertsitate publikoak, gure unibertsitateak, gogoeta egin behar du bere estrategia eta gobernantza-ereduari buruz, baliabide publikoen erabilera sinplifikatze eta eraginkortasun handiagoa lortu ahal izateko. Egoera ekonomiko eta finantzariorik at egin behar dugu gogoeta hau, herri-erakunde gisa dugun erantzukizuna baita euskal gizartetik jasotzen dugun finantzaketa handiaren ahalik eta erabilera onena egitea.

Irakasle eta Ikertzaileen eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen kudeaketa-eredu propioa landu nahi dugu. Zuzendaritza taldeak optimizatu nahi ditugu, eta, unibertsitate-kidegoarekin batera, datozen urteetan aurre egin beharko ditugun erronka handiei erantzuteko egitura instituzional onena zein den aztertu.

## **Sozialki erantzulea, gure herrian sustraitua eta mundura irekia den unibertsitatea**

Euskal Herriko Unibertsitateak gizarte-erantzukizun handia du. Euskal gizartea presente dagoen laborategi bat gara, Euskal Herri antzeko bat eskala txikian, non gizartearen sektoreek ordezkariak duten. Gure unibertsitatearen hobekuntza batek zuzenean eragiten du gizarte-erantzukizunaren arloan, gure gizartean, eta haren aldaketan laguntzen du, balio positiboetatik abiatuta.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunean sinesten dugu, horrek utzi baitigu eta utziko gizartera are gehiago irekitzen; etorkizunari dagokionez funtsezko uneak bizi dituen gizartea, hain zuzen, eta gure ekarpenaren zain dagoena.

Elkarrizketa sozialerako jokaleku komunak sortzeko apustua egiten dugu, gogoeta eta eztabaidarako topaguneak, azken batean, gizartean dugun esku-hartzea eta presentzia areagotzen utziko duten bide berriak sustatzeko asmoz.

## **Hizkuntza-normalizazioaren eredu den unibertsitate bat**

Gure unibertsitatean hizkuntza-normalizazioaren prozesuak jadanik 30 urtetik gorako ibilbidea du, eta haren lorpenak begi-bistakoak dira. Gaur egun, UPV/EHU euskararen normalizazioan funtsezko osagaia eta eragile nagusietako bat da. Gaur egun, graduko 10 ikasletik 9k euskaraz ikas dezakete. Goi-mailako prestakuntza eta eskarmentu handiko irakasle elebidunak ditugu; euskaraz egiten diren doktorego-tesiek eta euskararen presentziak ikerketan edo zientzia-hedapenean orain arte ez bezalako mailak erdietsi dituzte. Hala ere, oraindik ere badugu hobekuntzarako tarterik gradu-ondoko eskaintzan eta unibertsitate-kidegoari euskarazko zerbitzua emateko orduan.

Hori dela eta, Euskararen Plan Gidari berria egitea planteatzen dugu, arlo guztietan euskararen erabileraren normalizaziorantz irmoki aurrera egiteko helburu nagusiarekin.

## **Unibertsitate atsegin eta erakargarri bat unibertsitate-kidego osoarentzat**

Azken urteetan campus anitzeko garapen baten alde egin dugu apustu, unibertsitate-kidegoari eskaintzen dizkiogun zerbitzuak eta irakaskuntza- eta ikerketa-zerbitzuak hobetu eta hurbiltzearen.

Gure campusak nabarmen hobetu dira, baina oraindik ere eginkizun garrantzizkoak daude burutzeke. Horregatik, Eusko Jaurlaritzarekin hitzartutako eta egiteke dauden azpiegituren etorkizuna ahalbideratzen duen Urte Anitzeko Unibertsitate Plana defendituko dugu.

Gainera, lurralde bakoitzeko erakundeekin lan egingo dugu campus bakoitzean ahalik eta instalazio onenak, atseginenak eta erakargarrienak eskaintzeko bai gure unibertsitate-kidegoari bai nazioarteko ikertzaileei ere.

## **Gizarteari, ekinez eta berrikuntza bultzatuz, bere sormen osoa transferitzen dion unibertsitate bat**

Euskal gizarteak jadanik ibilbide ekintzaile eta berritzaile luzea du. Gure sare sozial eta ekonomikoak horrela frogatu du historian zehar. Gogo ekintzaile eta berritzaile hori, euskal herritarren berezko ezaugarria, gure unibertsitateak sustatu behar duen etorkizuneko beste giltzetako bat da.

Horregatik, gure prestakuntza-eskaintza osoan zeharkako izaera izango duen kultura ekintzaile eta berritzailea sustatzeko babes-egitasmoak egitea planteatzen dugu.

Orobat, euskal gizarteak inoiz baino gehiago behar du Unibertsitatean sortutako ezagutza transferi dadin, gure sormena eta ahalmen berritzailea uztartuko duten egiazko ekimenak bultzatuz. Horretarako, transferentzia-, berrikuntza- eta ekintzailetza-estrategia erraztuko duten bide eta tresna guztiak indartu behar ditugu.

Azken batean, oraina eraldatuz geroa eraikitzen duen unibertsitate aldaketa-eragilea.

**UNIBERTSITATEA GEROA DA,  
EDO BESTELA ZER?  
UNIBERTSITATEA ZUREA DA.  
ZURE IKASLEA DA.  
ZURE IRAKASLEA DA.  
ZURE LURRALDEA DA.  
GEROA DA, DENON GEROA.**

**UNIBERTSITATEA GEROA DA, EDO EZ DA.  
ZUREA DA.  
ZURE IKASLEA DA.  
ZURE IRAKASLEA DA.  
ZURE LURRALDEA DA.  
ZURE JENDEA DA.  
GEROA DA, DENON GEROA.**

**GUZTIOK DIHARDUGU UNIBERTSITATEGINTZAN,  
GUZTIOK GARA UNIBERTSITATEGILEAK.**



## 2. IKASLEAK, GURE IZATEKO ARRAZOIA

Gure ikasleak Unibertsitateko oraina eta geroa dira.

Gure ikasleen prestakuntza Unibertsitatearen izateko arrazoi nagusia da.

### ERRONKAK

- Ikasleak babestea eta laguntzea haien ekimen ekintzaileetan eta lan-arloan txertatzeko orduan.
- Unibertsitateko eta unibertsitate aurreko ikasleak adoretzea ikerketa-bokazioan.
- Ikasleen parte-hartzea bultzatzea unibertsitate-jardueran.
- Kalitatezko prestakuntza ireki eta berritzaile bat eskaintzea.
- Informazioa eta akademia-orientazioa sendotzea ikasketa-maila guztietan.

### PROPOSAMENAK

- Batzorde Parekidearen funtzionamendua bultzatzea bitartekaritza-organo gisa, gobernu-taldearen eta ikasleen ordezkariaren artean.
- Ikasketak amaitu dituzten ikasleen lan-arloko txertatzea hobetzea, ikasketa-planean proiektuen eta kasuen garapena mailaka sartzeari bultzatuz, baita ingurune sozio-ekonomikoan praktikak egitea ere.
- Ikasleek Gradu Amaierako Lana euskaraz egin ahal izatea bermatzea, epaimahai elebidunen eraketa bermatuz.
- Atzerrian mugikortasun-, praktika- eta egonaldi-egitasmoak zabal daitezkeen bultzatzea gradu eta graduondoko ikasleentzat.
- Espetxeetan dauden Presoentzako Arretarako Protokoloa eguneratzea, baita gaixotasun edo ezgaitasunengatik ikasketak aurrez aurre egin ezin dituztenentzat ere.
- Ikasletxeak proiektua garatzea bilera-gune, lan-gune eta denborapasa-gune gisa, Campus bakoitzeko Ikasleen Kontseiluarekin lankidetzan.
- Ikasleen lan eta akademia jarduerak bateragarri egiteko ekimenak garatzea.
- Ikasleen parte-hartze aktiboa bultzatzea ekintzailetzarekin lortura duten gaietan (Entreprenari, ZITEK-ABIATU, ehuINIZIA, Etorkizulan ...).
- Lan-merkatuan sartzeko orientazio- eta txertatze-jarduera profesionalak areagotzea, ikastegiaren eta Orientazio eta Enplegu Zentroekin lankidetzan.
- Honako Plan hauek garatzea:
  - II. Integrazio Plana ezgaitasunak dituztenentzat
  - Tutoretzako Ekintza Plana: tutoretza berdinen artean
  - Tutoretzako Plana Goi Mailako Kirolarientzat
  - Ikasleen I. Parte-hartze Plana
- Ikasleen parte-hartzea sustatzea unibertsitateko kudeaketa-organoetan, erakunde- eta curriculum-onarpena eginez.
- Ikasleak ikastegietan egiten den ikerketan sartzeari, haien integrazioa bultzatzeko taldeetan eta ikerketa-egituretan.
- Genero-ikuspegia eta garapen iraunkorraren ikuspegia sustatzea tituluetan eta irakaskuntza-programetan.



- Practicum eta kanpoko praktikak bultzatzea ekimen solidarioetan eta garapenaren lankidetzakoetan, sentsibilizazioa eta boluntarioak erakartzeko prestakuntza-ekintzak areagotuz.
- Ikasleenganako komunikazioa bultzatzea kanal berrien bitartez.
- Unibertsitate-garraioari buruzko hitzarmenak sina daitezten proposatzea eskumenak dituzten herri-administrazioei.
- Kudeaketa egitea unibertsitate-ostatuaren eskaintza handitzeko, honako helburu hauekin:
- Unibertsitate-egoitzetan dauden plazen eskaintzea handitzea, erakunde emakidadunekin hitzarmenak eginez.
- Unibertsitate-ostatua sortzea alokairuzko apartamentuetan, tokiko agintariekin hitzarmenak sinatu ondoren.
- Etxebizitza Solidarioen esperientzia zabaltzea.
- Campusetako irakaskuntza azpiegiturak hobetzen jarraitzea.
- Beharrezko kudeaketak egitea, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiarekin hitzarmena sinatu ondoren, espainiar espetxeetako presoek gure Unibertsitatean ikas ahal dezaten.
- Esperientzia Gelen ikasketa-eskaintza aztertu eta birdefinitzea, Campusetan dauden eskariei erantzunez.
- Ikasleei zuzendutako zerbitzuen gida bat lantzea, Campusekin lankidetzan.



# 3. ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen lan taldea osatzen duten profesionaleri esker, 32 ikastegi dituen eta zerbitzu ugari eskaintzen dituen egitura abian jartzen da modu eraginkorrean egunero. Funtsezkoak dira gure Unibertsitatearen irakaskuntza- eta ikerketa-helburuak erdiesteko. Egunero, Eman ta Zabal Zazu gure lema bere egiten duten langileak dira.

## ERRONKAK

- Kalitatezko enplegua sortzea, indarrean dagoen Unibertsitate Planean (2011-2014) ezarritakoaren arabera.
- Gure Administrazio eta Zerbitzuetako Langileek egunero Unibertsitateari egiten dioten ekarpena behar bezala baloratzea.
- Enpleguan kalitatea hobetzeko lan egitea, eta, bereziki, egungo egonkortasun-esparrua mantentzea.
- Administrazio eta Zerbitzuetako Langile kualifikatuak eta motibatuak izatea, beharrezko baldintza baitira unibertsitate-bikaintasunerako.

## PROPOSAMENAK

- Erreferentziako plantilla aztertu eta eguneratzea, eta haren emaitzen arabera, kideen berresleipen-neurriak sustatzea.
- Lanpostuen Zerrenda eta organigramak eguneratzea, eta haiek aldi berean behin eguneratzeko prozedura planifikatuak ezartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren aurrean eta gizarte- eta politika-eragileen aurrean, egoki diren gestioak egitea, UPV/EHU egungo egonkortasun-esparrua mantentzeko helburuarekin, bai eta egungo egoerarentzat egoki den esparru berri bat sustatzeko ere.
- Negoziazio kolektiboaren esparrua mantentzea UPV/EHUren barruan:
  - Lan-kontratuko AZPkoen Hitzarmen Kolektibo berria negoziatzea.
  - Lan Baldintzak Arautzeko Akordioa negoziatzea.
- Lanpostuen baloraziorako prozedura ezartzea, lanpostuetan sortutako aldatetarik eratorritako ezinbesteko ordainsari-egokitzapenak honela egiteko:
  - Behin-betiko balorazioaren zain dauden postuen balorazio-prozesua burutzea.
  - Behin-betiko balorazioa duten postuen mantentze-baloraziorako mekanismoak ezartzea.
  - Prozedura bat ezartzea aldatu diren lanpostuak edo sortu berriak direnak baloratzeko, dagokionean, hau da, aldatu edo sortzen diren unean.
- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen kide-kopurua mantentzea, indarrean dagoen Unibertsitate Planaren (2011-2014) arabera.
- Lan-kontratuko eta funtzionarioen Lan Eskaintza Publikoaren oinarriak negoziatzea, bai eta barne-promozioaren oinarriak, lege-esparruak uzten duenean bete daitezkeen.
- Hainbat unitate edo postu motetan telelanaren mailaz mailako ezarpena negoziatzea, dagozkien plan pilotuen ondoren, bizitza pertsonala, lanekoa eta familia-arlokoa bateratzeko.
- Familiako eta lan-arloko bizitzak bateratzeko arloan dauden formulaz gain beste batzuk ere bilatzea.
- Poltsen kudeaketarako akordio berri bat negoziatu eta, dagokionean, berrikustea, haien kudeaketa errazteko asmoz.
- Barne-prozedurak eta informazio-sistema hobetzea (Langileen Ataria, langileen web orria, intranet,...), langileekiko komunikazioa errazteko.

- Gerentziak langileekin duen komunikazioa sustatzea, negoziazio-arloak informazio-arloetatik bereiziz.
- AZPko langileek unibertsitate-gobernantzako estrategietan parte-hartze handiagoa izatearen alde apustu egitea, besteak beste, administrazio-unitateen artean lankidetzaren sustatzea, informazio- eta komunikazio-mekanismoak ezarriz, lankidetzaren eta eraginkortasun handiagoa lortzeko.
- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileei gogobetetze-inkestak egitea, hobekuntza-planak egiteko asmoz.
- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Prestakuntzarako Plan Integrala ebaluatzea eta Plan berri bat garatzeko oinarriak ezartzea.
- Lan-antolakuntzaren eta lan-baldintzen hobekuntzan jardutea, arrisku psikosozialak saihestu edo minimizatzeko.
- Aholkularitza, kudeaketa eta zuzendaritzako goi-mailako eginkizunak bere gain hartuko lituzkeen zuzendaritzako kidearen irudia definitu eta ezartzea (Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren arabera).
- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen parte-hartzea handitzea mugikortasun- eta truke-programetan atzerrian egonaldiak egiteko; zerbitzuaren beharrei lotutako hizkuntza-gaitasunak hobetzea.



# 4. IRAKASLEAK ETA IKERTZAILEAK

Unibertsitateak, aurrean dituen erronkei erantzuteko, bere Irakasleak eta Ikertzaileak dauzka, erakundearekin eta herriaren garapenarekin konprometitua dauden pertsonak, ikerketan eta irakaskuntzan motibatuak. Egunero, Eman ta Zabal Zazu gure lema bere egiten dutenak.

## ERRONKAK

- Irakasle eta Ikertzaile kualifikatuak eta motibatuak izatea beharrezko baldintza da gure Unibertsitatearen irakaskuntza- eta ikerketa-bikaintasunerako.
- Promozioa, karrera profesionala, irakasleen kidegoetarako sarbidea eta kontratazio mugagabea babestu eta sustatzea, baita plantilla gaztetzea eta ikertzaile eta irakasle talentudunak erakartzea ere.
- Lanaldi osoko plantillako plazetan dauden irakasleen artean % 80ko doktoreen ehunekora iristea eta irakasle iraunkorren % 85 gainditzea.

## PROPOSAMENAK

- Irakasleen eta Ikertzaileen plantilla mantentzea, indarrean dagoen Unibertsitate Planaren (2012-2014) arabera.
- Akademia Arduraldirako Plana abian jartzea, honako hauek lortzeko:
  - Irakasleen eta Ikertzaileen berezko eredu bat ezartzea, egiten dituzten unibertsitate-jarduerak kontuan hartuz.
  - Irakasleei eta Ikertzaileei, egiten dituzten unibertsitate-jardueretan, haien arduraldia areagotzen uztea eta aitortzea.
- Negoziazio kolektiboaren esparrua mantentzea UPV/EHU barruan:
  - Irakasle laboralen eta Ikertzaileen Hitzarmen Kolektibo berria negoziatzea.
  - Lan Baldintzak Arautzeko Akordioa negoziatzea.
- Kultura ikertzailea txertatzea irakasleen karreran, ikertzaile gazteei aukerak eskainiz belaunaldi arteko txandakatzea behar bezala segurtatzeko, Irakasleen eta Ikertzaileen mugikortasuna bultzatuz eta ikertzaile ospetsuak erakarriz.
- Irudi iraunkorretarako sarbidea erraztuko duten irakaskuntza- eta ikerketa-prestakuntzarako programak diseinatu eta garatzea.
- Akademia Arduraldirako Plana kontuan hartuko duen Irakasleen eta Ikertzaileen Plan Gidari berri bat diseinatzea. Plan Gidari horrek plantilla egokitu behar du Unibertsitatearen egiturazko beharretara eta belaunaldien arteko txandakatzeari aurre egin behar dio.
- Akreditazioak lortzen laguntzeko Unitate bat sortzea, irakaskuntza, prestakuntza eta argudia daitekeen beste edozein jarduerari buruzko ziurtagiriak kudeatuko dituena. Era berean, aholkularitza eskainiko die irakasle gazteei, ibilbide akademikoa diseinatu eta gara dezaten.
- Sabatikoen politika mantentzea irakasleen etengabeko prestakuntzarako.
- Irakaskuntza-prestakuntza eta -eguneratzea egiteko ikastaroen eskaintza (irakaskuntzari aplikagarriak zaizkion teknologiak, genero-metodologia eta garapen iraunkorrak, etab.) hobetzea.
- Irakasle laboralen eta behin-behinekoen kontratuen moldatze prozesuarekin jarraitzea, 2011ko EAEko Aurrekontuen Legean ezarritakoaren arabera.

- Doktoregoa egiten eta Irakasleen eta Ikertzaileen plan gidariaren barruan hartutako konpromisoak dituzten behin-behineko Irakasle eta Ikertzaileen akreditazioa erraztuko duten politikak diseinatzea.
- Doktorego-tesiaren amaiera errazteko lizentzien programarekin jarraitzea.
- Ekintzak garatzea erakunde eskumendunen aurrean, Irakasleen eta Ikertzaileen ordainsari osagarrien deialdiak egin daitezten.
- Lan-antolakuntzan eta baldintzen hobekuntzan jardutea, arrisku psikosozialak saihestu edo minimizatzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lan egitea, Batzorde Mistoaren barruan, irakasle elkartuen eta klinikoen sustapena errazteko, eta Unibertsitateak Osakidetzarekin duen harremana indartzeko.

# 5. GRADUEN ESKAINTZA

## IREKIA ETA BERRITZAILEA

UPV/EHUko irakaskuntza-ereduak kalitatezko prestakuntza eskaintzen du, gizarteak eskatzen duenaren arabera, eta bertan, pertsona zentzudunak, sortzaileak, ekintzaileak eta gizartearekiko konpromisoa dutenak trebatzen dira, prestakuntza-eredu propio, kooperatibo, eleanitz eta inklusibo baten bidez.

### ERRONKAK

- Kalitatezko prestakuntza irekia eta berritzailea finkatzea.
- Euskal gizartearen prestakuntza-beharrei erantzutea, graduako eskaintza zabalaren bidez.
- Campusetako Esperientzia Geletako ikasketen eskaintza birdefinitzea.
- Ikasleek prestakuntza osoa eskuratzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta ezaguerak eskuratzen dituztela bermatzea.
- Egresatuen lan-txertatzea hobetzea.
- Graduako titulazioen akreditazioa berritzea.

### PROPOSAMENAK

- Unibertsitateko tituluen jarraipena eta hobekuntza gauzatzea eta tituluak finkatzea, graduako prestakuntza-eskaintza zabala, dinamikoa, iraunkorra eta gure ahalmen akademikoarekin bateragarria bermatzeko.
- Egresatuen lan-txertatzea hobetzea, ikasketa-planean pixkanaka proiektuen eta kasuen garapena integratuz, eta ingurune sozio-ekonomikoan praktikak eginez.
- Titulu bikoitzak sustatzea, UPV/EHUko tituluak bateratuz edo beste unibertsitate batzuekin elkarlanean.
- Ikastegiak titulazioen egiaztatzea berritzeko eta jarraipena egiteko prozesuak erraztea, eskakizunak sinplifikatuta eta aplikazioak hobetuta eta koordinatuta.
- Irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzan sakontzea, jarraipenaren emaitzen analisiaren bidez, eta erabakiak hartuz, bai ikastegi eta titulu mailan, bai tituluen mapari begira.
- Gradu Amaierako Lanaren antolaketa erraztea, ikastegiaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta.
- Tituluetan eta irakaskuntza-programetan genero-ikuspuntua, garapen iraunkorra eta ekintzailatza kontuan har daitezen sustatzea.
- Zeharkako prestakuntza-jarduerak antola daitezen bultzatzea, ikasleen lan-txertatzea, diziplina-aniztasuna eta jarrera berritzailea sustatzeko.
- Lanbide-prestakuntzarekin eta txandakako prestakuntzarekin erlazionatutako entitateekiko lankidetzapolitikari jarraipena ematea.
- Campus Birtuala birdiseinatzea, irakaskuntzari eta ikasgelaz kanpoko irakaskuntzari laguntzeko zerbitzu moduan, arreta berezia jarritz sareko prestakuntza etengabea.
- Esperientzia Geletako ikasketen eskaintza hobetzea, eskariari erantzunez.

# 6. NAZIOARTERA BEGIRA ERAKARGARRIA DEN GRADUONDOKO ESKAINTZA, GURE INGURUNE EKONOMIKO ETA SOZIALERA BIDERATUA

UPV/EHU unibertsitate publikoa eta ikertzailea da, mundura irekia, gure lurraldean eta kulturaren errotua, eta haren konpromisoa da bai gure ingurunean bai nazioartean ikerketa, berrikuntza eta jakintzaren transferentziari begira eredu izango den graduondoko eskaintza sustatzea.

## ERRONKAK

- Graduondoko eskaintza askotarikoa eta kalitate egiaztatukoa sustatzea.
- Unibertsitateko kideekin eta eragile ekonomiko eta sozialekin gogoeta estrategikoa egitea, gure doktorego-  
eskolen eredia ezartzeko.
- Gaur egungo graduondoko eskaintza bideratzea, dauden baliabideak, eskaria eta irismen soziala kontuan hartuta.
- Unibertsitateko doktorego-programen eskaintza 99/2011 Errege Dekretura egokitzea.
- Nazioarteko doktorego-tesiak eta haietatik eratorritako kalitatezko argitalpenak sustatzea.

## PROPOSAMENAK

- Masterren eta Doktorego Programen Mapa bat egitea, Euskal Herriko epe ertaineko eta luzeko beharrei erantzuneko dien graduondoko eskaintza diseinatzeko erreferentzia izan dadin.
- Ikerkuntza-izaera duten master lehiakorren eskaintza finkatzea.
- Nazioarteko unibertsitateek elkarren artean garatutako masterren eskaintza sustatzea.
- Izaera profesionaleko masterrak bultzatzea, dagozkien erakundeekin akordioak ezarrita.
- Jakintza-adar desberdinen premiei erantzutea eta diziplinartekotasuna sustatzea, prestakuntza  
espezializatuaren sinergiak aprobetxatuta (ikerketa-taldeak eta Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak).
- Garapen zientifiko, teknologiko eta sozialarekin erlazioatutako erakundeekiko lankidetzak bultzatzea, eta profesional gaituak eta entzute handiko ikertzaileak erakarriko dituen prestakuntza-eskaintza sustatzea.
- Masterren eta doktoregoen nazioartekotzea sustatzea, honako hauen aldeko apustua eginda:
  - Eskaintza osoa edo eskaintzaren zati bat hizkuntza ez-ofizialetan egitea.
  - Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna.
  - Beste herrialde batzuetako ikasleak erakarriko dituen eskaintza.
- Graduondoko eskaintzaren prestakuntza-eredua IKD eredura egokitzea.
- Ikerkuntzarekin lotutako alderdi etikoei eta gizarte-erantzukizunari buruzko prestakuntza sartzeko doktorego-  
programetan.
- Nazioarteko prestakuntza-jarduera zeharkakoak (dok-barnetegiak) antola daitezkeen bultzatzea, ikasleen lan-  
munduratzea, diziplina-aniztasuna eta jarrera berritzailea sustatzeko.
- Tutorekidetzak erregimeneko nazioarteko doktorego-tesiak sustatzea, eta bereziki, NBC-EUSKAMPUS  
proiektuaren esparruan gauzatutakoak.
- Graduondoko programak ezartzea euskal kulturaren arloan.
- Bizitza osoko prestakuntzaren politika diseinatzea.
- Etengabeko prestakuntzarako eredu iraunkor bat diseinatzea, irizpide akademikoak eta behar sozio-  
ekonomikoak kontuan hartuta.
- Berezko tituluen gaur egungo eskaintza berraztertzea, Masterren eta Doktorego Programen Mapa egin ondoren.

# 7. UNIBERTSITATE IKERTZAILEA

Unibertsitate ikertzaile bat gara, eta, horri esker, gure ikasleek ematen den irakaskuntza-eskaintzan sortutako ezagutzaz etekina ateratzen dute. UPV/EHU erreferentzia-puntua da Euskal Herrian ezagutza berriaren sorkuntzan eta jakintza-arlo guztietako ikertzaileen prestakuntzan. Euskal gizartearen gizarte-ongizatean lagundu behar dugu mugako ikerketa baten bitartez, gure ingurunearekiko lankidetzeta eta haren emaitzen transferentzia eraginkor bat bultzatuz.

## ERRONKAK

- Kuantitatiboki eta kualitatiboki handitzea ekoizpen zientifikoa arlo guztietan.
- Urtero 400 doktorego-tesitik gora defenditzea, nazioarteko tesiak, ingurune sozio-ekonomikoarekin lankidetzan egindakoak eta euskaraz defenditutakoak nabarmen handituz.
- Jarduera ikertzaile aitortua duten irakasleen eta ikertzaileen ehunekoa handitzea.
- Bikaintasun zientifikoaren kultura hedatzea ezagutza-arlo guztietara, bere erreferentziazko kidego zientifikotik abiatuta.
- Baliabideak erakartzeko modua hobetzea, bai ikerketa-deialdi lehiakorretan, gehienbat europarretan, bai gizarteari egin beharreko ezagutza-transferentziaren arloan.
- Espiritu berritzailea eta mugako ikerketa sustatzea zientzialari gazteen artean, belaunaldi-aldaketa eta gure Unibertsitateak zientziari eta gizartearen aurrerabideari egin beharreko ekarpena bermatzeko.
- Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren pertzepzio soziala bultzatzea, baita doktorearen irudiaren gizarte- eta lan-arloko balioa ere.
- Ezagutza sortzeko azpiegiturak eta ekipamenduen erabilera zabaltzea, eta haiek ekoizpen- eta gizarte-egiturarantz transferi daitezen bultzatzea.

## PROPOSAMENAK

- Jarduera ikertzaile handia duten irakasle eta ikertzaileak babestea, ikerketaren kudeaketarako ingurune arin eta eraginkor bat eskainiz.
- Ikerketa taldeen eta Prestakuntza eta Ikerketa Unitateen (PIUak) konpromisoan oinarritutako ikerketa bultzatzea, modu bateratuan hitzartutako helburuak lortzeko.
- Ikerketarako babes-ekintzak sustatzea honako hauentzat:
  - Goraka ari diren ikerketa taldeentzat.
  - Diziplina anitzeko ikerketa taldeentzat, bereziki neurri txikiko ekipoak dituzten ikerketa-ildoak dauden arloetan.
  - Ikerketa-ildo berrien sorrera, bereziki ikertzaile gazteentzat.
- Jarduera Ikertzailea Areagotzeko Programa bat abian jartzea, irakasle guztien txertatzea bultzatzeko eta intentsitate apaleko ikerketa-arloetan hobetzeko. Besteak beste proposatzen dira:
  - Ikerketa-programa zehatzak sustatzea arlo defizitarioetan
  - Ikertzaile kualifikatuena leku aldatzea bultzatzea, arlo defizitarioetan ikerketa talde berriak sor daitezen
  - Doktoreen prestakuntzarako Zabalduz Programa sustatzea ekoizpen- eta gizarte-ingurunearekin kooperazioan, lankidetzeta publiko-pribatua sustatuz.
- Ikerketa-baliabideak, gaitasunak eta zerbitzuak optimizatu eta indartzea, ingurune eragileekin lankidetzan, bereziki Nazioarteko Bikaintasun Campusa (NBC) Euskampus Proiektuaren barruan.



- SGIKER ikerketa-zerbitzuen garapenerako programa bat ezartzea hiru campusetan, arreta berezia eskainiz gabezia handienak dituzten arloei.
- Trebatzen ari diren Ikertzaileen plazen kopurua handitzea gure deialdien bidez, 2015. urtean arduraldi osoko 250 doktoregai kopurua lortzeko helburuarekin, honela garatze bidean dauden doktorego-tesien kopurua handituz.
- Taldeen nazioarteko lankidetzen mapa bat prestatzea eta hiru urtean behin Unibertsitatearen ikerketa-mapa eguneratzea, babes- eta sustapen-ekintzak diseinatzeko, eraginkortasun-irizpideak sartuz.
- Unibertsitate-liburutegia sustatzea, irakaskuntzaren eta ikerketaren garapenaren oinarritzko zutabea den aldetik:
  - Aldizkarietako harpidetzen berritze- eta eguneratze-politikarekin jarraitzea
  - Eusko Jaurlaritzarekin NBC-Euskampus eransketaren liburutegi zientifikoen integrazioa negoziatzea, baliabideak eta gaitasunak hobeto ustiatu ahal izateko.
  - Jarduera ikertzailearen Ebaluazio eta Jarraipen Unitate bat sortzea, zerbitzu orokor gisa.
  - Ikerketa taldeei haien profilararekin bat egiten duten deialdi publiko lehiakorrei buruz modu pertsonalizatuan informatzeko zaintza zientifiko eta teknologikoko mekanismoak sortzea.
- FECYT edo antzekoen kalitate-irizpideetara egokitzen diren euskarri elektronikoko Unibertsitatearen Funts Editorialaren aldizkari zientifikoak babesteko egitasmo bat ezartzea.
- Doktorego ondoko laguntzak sustatzea eta ikertzaile iraunkorren plazak sortzea.
- Tokiko erakundeekin laguntzak negoziatzea gaur egun atzerriko ikastegietan ikertzen ari diren gure Unibertsitateko doktoreak itzul daitezten.
- Kultura ikertzailea integratzea irakasleen karreraren, ikertzaile gazteei aukerak eskainiz belaunaldi-aldaketa behar bezala bermatzeko, Irakasle eta Ikertzaileen mugikortasuna sustatuz eta ospe handiko ikertzaileak erakarriz.
- Ekintzaileen jardueraren sustapen-egitasmoak indartzea eta Campusetan transferentzia eta berrikuntza erraztuko duten Unibertsitateko spin-offentzako gune berrien sorrera sustatzea.
- Azpiegitura zientifiko-teknologikoak eraiki eta abian jartzea: Giza eta Gizarte Zientzien Ikerketarako Zentroa Araban; Animalia Bioteknologiaren Zentroa, Plataforma Zientifiko-Teknologikoa, Biofisika Unitatea eta Animaliategia Bizkaian; eta Donostiako Erabilera Anitzeko Zentroa, Gipuzkoan.
- I+G+B Zentroaren eraikuntza bultzatzea Sarririkoko gunean eta Joxe Mari Korta zentroa zabaltzea Donostian.
- Proposamen lehiakorren aurkezpenean lankidetzak publiko-pribatua bultzatzea, bereziki europar deialdietan, kanpoko baliabide gehiago erakartzeko.
- Unibertsitatearen Kultura Zientifikoko eta Berrikuntzako Programaren ekintzak areagotzea:
  - Zientziaren Astearen, Campus Zientifikoaren, eta abarren jarduerak dibertsifikatzea.
  - Zabalkunde zientifikoa euskaraz egiteko ekintzak diseinatzeko.
  - I+G+B emaitzen zabalkunderako kanal eta euskarri berriak bilatzea.
- Unibertsitateko ikasleak haien ikastegietan egiten den ikerketan sartzea, haien integrazioa bultzatuz taldetan eta ikerketa-egituretan.
- Unibertsitateko ez diren ikasleen artean sentiberatze-kanpainak egitea bokazioak sustatzeko eta ikertzailearen lanbidearekiko interesa pizteko.

# 8. EZAGUTZA-TRANSFERENTZIA

## GIZARTEAREN ZERBITZURA

UPV/EHUK ezagutza sortu eta gizarteari transferitzeko orduan duen lidergoa indartzea du helburu, horretarako kooperazio-lanaren (auzolan) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearekiko eta nazioarteko eragileenganako itun-politikaren alde apustu eginez.

### ERRONKAK

- Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campusaren Proiektuaren zabalkundea sustatzea.
- Ezagutzaren transferentzia areagotzea, ekoizpen- eta gizarte-egiturarekin eginiko itun, sare eta loturarekin bitartez.
- Unibertsitate-jardueratik abiatuta sortzen den berrikuntza eta ekintzailtza-jarduera bultzatzea.
- Etengabeko prestakuntza-eskaintza bat sustatzea, malgua eta egokitua, pertsoneri bizitza osoan zehar ikasten laguntzeko.
- Unibertsitatearen gizarte-inplikazioa sustatzea, iritzia sortzean erreferentzia-puntu bat izan dadin.

### PROPOSAMENAK

- NBC-Euskampus Proiektuari atxikitako erakundeekiko hitzarmenak sendotzea eta atxikipen berriak sartzeari ehuTALDEAREN egituratze-politika garatzeko.
- Lankidetzaren publiko-pribatua sakontzea, Unibertsitatearen gizarte-presentzia areagotzeko duten programa berriekin eta erakunde parte-hartzaileen inplikazioarekin:
  - Unitate Mistoak, ikerketa eta transferentziarako gune berezkoak sortzeko unibertsitate-inguruetik kanpo.
  - Unibertsitate-Gizarte Gelak, ikastegiekin lankidetzan, lan-txertatzea bultzatzeko eta gure ikasleen enplegarritasuna hobetzeko.
- Ezagutza Poloan Kidego bat garatzea, diziplina anitzeko izaera duen lankidetzaren esparru gisa NBC-Euskampus Proiektuari atxikitako erakundeekin.
- Irizpide akademikoak eta beharrezko ekonomiko-soziala erantzuneko dien prestakuntza etengabearen eredu jasangarri bat diseinatzea.
- Eusko Jaurlaritzako Sailekin lan egitea kooperatiba-izaera duten ikerketa- eta berrikuntza-guneak sortzeko, eta, dagokionean, ekimen partekatutako (BERCak, CICak, Institutu Biosanitarioak, etab.) abian jartzeko.
- Gizartearen zerbitzurako Katedra Instituzional berrien sorrera bultzatzea, ikerketa- eta transferentzia-ildoak bultzatzeko zeharkako egiturak eskatzen dituzten arloetan.
- Sektoreetako topaguneak sustatzea gure ikertzaileen eta beste erakunde batzuetako I+G+Bko profesionalen artean, Gizarte Kontseiluarekiko lankidetzan, besteak beste.
- Gizarte-erronka berriei buruzko gogoetarako guneen eta ideiak sortzeko guneen sorrera sustatzea:
- ehuGUNE garatu eta sendotzea, gizarterekin elkartzeko berezko gunean, auzi politiko, ekonomiko eta sozialei buruzko eztabaidagune eta iritzigune gisa.
- Gizarte- eta ideia-laborearen sorrera bultzatzea, gizarte-berrikuntzaren alde eginez.
- Gure presentzia areagotzea erakunde-izaerako parte-hartzea eskatzen duten partzuergo, itun, instalazio zientifiko handi eta nazioarteko erakundeetan, besteak beste.
- Berrikuntza estrategia zabal baten garapenean sakontzea.

- UPV/EHUko Zientzia Parkea sustatzea ikerketa eta transferentziarako azpiegitura dinamizatzailerik, egitura sozio-ekonomikoarekiko kolaboratzaile eta talentuaren erakarle gisa.
- Lanbide-txertatzea, diziplina aniztasuna eta ikasleen jarrera berritzailea sustatuko duten zeharkako prestakuntzarako jarduerak antola daitezzen bultzatzea.



# 9. EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN UNIBERTSITATEA

UPV/EHUren erantzukizuna da ezagutza sortzea bi hizkuntza ofizialetan, eta, unibertsitate publikoa den aldetik, euskarazko irakaskuntzaren- eta argitalpen akademikoen kalitatea sustatu behar ditu.

Euskararen normalizazio-prozesua gero eta zabalagoa da, baina oraindik ere babes-neurriak ezarri behar dira graduiko ikasketetan sendotzeko, graduondoko ikasketetan ezartzeko, ekoizpen zientifikoa areagotzeko eta irakaskuntza-testuak sortzeko.

## ERRONKAK

- Corpus zientifikoa euskaraz garatzea, master amaierako lanak, doktorego-tesiak eta euskarazko edukiak dituzten nazioarteko tesiak egin daitezen sustatzeko.
- Euskarazko ezagutza zientifikoa, teknikoa, humanistikoa eta artistikoaren ikerketa eta hedapena sustatzea, bai eta euskarari eta euskal kulturari buruzkoa ere.
- Euskararen presentzia handiagoa sustatzea graduondoko eta uda ikastaroetako eskaintzan.
- Euskal kulturaren eta hizkuntzaren garapena eta gizarte-proiektzioa bultzatzea, arlo horietan lankidetzaz sustatuz.

## PROPOSAMENAK

- Euskararen Plan Gidari berri bat landu eta abian jartzea, graduoko eskaintza berrikustea eta graduondoko euskarazko eskaintzan arreta berezia jartzea.
- Unibertsitatean euskarak duen presentziaren azterlan diagnostiko bat egitea, hizkuntza-normalizazioa bultzatuko duten neurriak hartzeko erreferentzia gisa balio dezan.
- Mikel Laboa Katedra abian jartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, euskal artearen eta folkloreak hainbat adierazpenen azterketa, ikerketa eta proiektzioa bultzatzeko, ikuspegi berritzaile batetik.
- Ikasleek Gradu Amaierako Lana euskaraz egin ahal izatea bermatzea, epaimahai elebidunen eraketa bermatuz.
- Nazioarteko tesien eta euskarazko tesien araudiak berrikustea, bateragarri egiteko.
- Euskarazko itzulpenetan eta irakaskuntza-testuen ekoizpenean aurrera egitea, garrantzi berezia emanaz euskarri digitalei, eta material horien sustapen-kanpainak egitea.
- Euskarazko zabalkunde zientifikoa sustatzea, unibertsitate aurreko ikasleentzat, profesionalentzat eta publiko espezializatuarentzat.
- Irakasle eta Ikertzaileen eta AZP elebidunen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, tailerrak antolatuz eta haien eskura kontsulta-tresnak eta sareko materialak jarritz.
- Publikoaren arretarako postuetan dauden langileen hizkuntza-gaitasuna hobetzea.
- Euskara erabiltzen duten beste unibertsitateekin lankidetzan jardutea, bereziki euskarazko irakaskuntza-materialen prestaketan, argitalpenean eta zabalkundean.
- Uda ikastaroetan euskarazko ikastaroak izatea eta horietan parte-hartzea sustatzea.

# 10. MUNDURA IREKITA

## DAGOEN UNIBERTSITATEA

UPV/EHU euskal gizartean sustraituta dagoen unibertsitatea da, munduari begiratzen diona irakaskuntzan, ikerkuntzan eta ezagutzaren transferentzian, nazioarteko erreferentzia izateko xedez.

### ERRONKAK

- Talentua gurera erakartzeko eta gurean gerarazteko politika bat garatzea.
- Nazioartean mugikortasuna eta trukeak areagotzea.
- Egitura eta zerbitzuak nazioartekotze beharretara egokitzea.
- Nazioarteko aliantzak eta lankidetzak sendotzea, baita nazioarteko sareetan dugun presentzia ere.
- Euro-eskualdearen Unibertsitatea taxutzea Akitaniako unibertsitateekin batera, nazioarteko inpaktua duen mugaz gaindiko sare bat sendotzeko.
- Euskal diasporako zentroekin harremanak ezartzea.

### PROPOSAMENAK

- Mugikortasuna eta trukea
- Gradu eta graduondoko ikasleentzako atzerriko mugikortasun-, praktika- eta egonaldi-programen zabalkundea sustatzea.
- Programen zabalkundea sustatzea Irakasleek eta AZPkoek atzerrian egonaldiak egin ditzaten.
- Ikasle eta ikertzaile bisitariarentzako harrera-zerbitzua hobetzea, eta bisitarien aurretik eta ondoren jarraipen bat egitea, gure unibertsitatearekin duten loturak bizirik iraun dezan.
- Euskal ikasketetako sailak dituzten erakundeekin ezarritako loturak sendotzea.
- Euskal diasporaren artean gradu eta graduondoko gure prestakuntza-eskaintza hedatzea.
- Arlo honetan garatutako laguntzaile birtuala eta gainerako informatika-tresnak optimizatzea.
- Graduoko hezkuntza-eskaintza:
- Ikastegiekin egindako konpromiso-agirien bitartez, hizkuntza ez-ofizialetan ematen diren modulu, ikastaro edo irakasgai-multzoak sustatzea.
- Titulu bikoitzak sustatzea, batez ere Akitaniako unibertsitateekin ezarritako lankidetzaren esparruan.
- Graduondoko prestakuntza-eskaintza:
- Prestakuntzan dauden ikertzaileen egonaldiak sustatzea atzerrian (baterako turoretzako tesiak eta nazioarteko tesiak), hizkuntza ez-ofizialetan ematen den graduondoko eskaintza eta nazioarteko unibertsitate arteko masterrak.
- Master eta doktoregoen Latinoamerikako sarea indartzea.
- Europar, estatubatuar eta kanadar unibertsitateekin dagoen lankidetzaren sarea zabaltzea.
- Uda Ikastaroen bitartez, ikastaroen antolakuntza bultzatzea hizkuntza ez-ofizialetan, batez ere gure graduondokoekin zerikusia duten gaitan.
- Nazioartean hedatzea:
- Europar deialdietara aurkezteko aukera erraztea, eskatzaileei babesa eskainiz eta haiek bideratuz nazioarteko proiektuetan sar daitezten.
- Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko sarearekin harremanak sendotzea, baita atzerrian dauden euskal enpresa eta erakundeekin ere.
- Nazioarteko ikasle, irakasle eta ikertzaileak erakartzea, besteak beste, Basque Yourself kanpaina sustatuz.
- NBC-EUSKAMPUS Proiektuaren bitartez Unibertsitatearen kanpoko irudia sendotzea.



# 11. UNIBERTSITATE KONPROMETITU ETA ARDURATSUA

UPV/EHUK neurriak garatu behar ditu emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrean aurrera egiteko eta, zuzentasun, iraunkortasun eta giza eskubideekiko errespetua ardatz hartuta, gizartearen aurrerabidea bultzatuko duten gizarte- eta kultura-desberdintasunen murrizketan aurrera egiteko.

## ERRONKAK

- Unibertsitate-kidegoaren parte-hartzea sustatzea iraunkortasuna, berdintasuna eta garapena erdiesteko hezkuntzarekin lotutako arloetan.
- Unibertsitate-eztabaidatik, bizikidetzaren normalizazioan laguntzea.
- Ingurumenarekiko errespetua eta baliabide naturalen erabilera arduratsua sustatzea.
- Unibertsitate aktiboago bat lortzea, garapenerako lankidetzaren eragile gisa.
- Unibertsitate-kidegoa modu aktiboagoan inplikatzea bere inguruneko gizarte- eta kultura-arazoetan.
- Gizarte parte-hartzaileago eta demokratikoago baten berezko balioan sakontzen lagunduko duten ekimenak sustatzea.

## PROPOSAMENAK

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun plan berri bat landu eta abian jartzea.
- Unibertsitateko iraunkortasun eta ingurumen-ondorioen arloko ekimenak sustatu, koordinatu eta komunikatuko dituen Iraunkortasun Unitate bat abian jartzea.
- Unibertsitatean Iraunkortasunerako Hezkuntza ezartzeko zeharkako estrategia bat diseinatzea.
- Iraunkortasun Memoria lantzea Plan Estrategikoaren jarraipena egiteko helburuarekin unibertsitateko gizarte-erantzukizunaren arloan.
- Garapenerako unibertsitate-lankidetzako jarduerak sustatzea, Garapenerako Lankidetzako Kontseilua sendotuz.
- Practicum eta kanpoko praktikak ekimen solidarioetan eta garapenerako lankidetzakoetan egin daitezen sustatzea.
- Iraunkortasun, berdintasun eta garapenerako hezkuntza sustatzea, unibertsitateko curriculumean sartuz, prestakuntza- eta ikerketa-alderditik.
- Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa bideratzea, garapenerako unibertsitate-lankidetzaren bultzatzeko, unibertsitate-kidego osoaren ahaleginak koordinatu, babestu eta bideratzen dituen unitate gisa.
- EHUgune eztabaida-gunean parte-hartzea sustatzea bizikidetzaren normalizazioan laguntzeko.
- UNU-RCE Euskal Herriaren (United Nations University-Regional Centre of Expertise) gaitasuna aztertzea ekintzailatza eta ezagutza-transferentziaren jardueran gizarte-erantzukizunarekin, iraunkortasunarekin eta eskualde-garapenarekin lotzeko.

## 12. UNIBERTSITATE ATSEGINA ETA HURBILA

UPV/EHUK egitura instituzional modernoa izan behar du, eransketa estrategikoetan oinarritua, euskal gizartean sustraitua, mundura irekia eta campus anitzeko antolakuntzarekin bateragarria. Gure ahaleginak bideratu behar ditugu 2012-2017ko Plan Estrategikoaren eta 2011-2012ko Unibertsitate Planaren helburuak erdiestea erraztuko duen egitura instituzional hori hobetzera, gure barne-gobernantza berrikusiz, kudeaketa-tresnak egokituz eta unibertsitate-kidegoaren kohesio handiagoa sustatuz.

### ERRONKAK

- Unibertsitate-kudeaketa arinago, gardenago eta atseginago baterantz aurrera egitea, gastuaren kontrol eraginkor eta eragingarriarekin.
- Unibertsitate-egitura garatzea, campus anitzeko eraketaren arabera, modu orekatuan, erabakiak hartzeko eraginkortasuna hobetuz.
- Finantzaketa egonkorreko eredu bat erdiestea, unibertsitatearen iraunkortasuna bermatuko duena bere alderdi guztietan.
- Unibertsitate-autonomia ahalik eta gehien gauzatzea, gardentasun handiagoarekin eta kontu-emate garbiarekin.
- Unibertsitate-kidegoaren kohesio handiagoa sustatzea, UPV/EHUren kidetasun- eta identitate-sentimendua indartzeko, kontuan hartuz aukera berdintasunaren printzipioa eta aniztasunarekiko errespetua.
- Euskararen erabileraren normalizaziorantz irmoki aurrera egitea, unibertsitate-bizitzako alderdi guztietan.
- Unibertsitatearen barne- eta kanpo-proiektzioa hobetzea, komunikazio profil propioarekin.

### PROPOSAMENAK

- e-administrazioa zabaltzea ahalik kudeaketa-jarduera gehienetara eta tresna informatikoak hobetzea zerbitzuetan lana arindu eta errazteko.
- Euskararen Plan Gidari berria landu eta abian jartzea, unibertsitate-bizitzan euskara normaltasunez erabili ahal izatea sustatuz.
- Kide anitzeko organoetan erabakiak hartzeko orduan parte-hartzea eta gardentasuna sustatzea, eta egindako jarduerari buruz informatzea.
- Kudeaketarako sistema erraz eta arin bat ezartzea unibertsitateko antolakuntza-unitate guztietan eta Prestakuntza Planak egokitzea.
- Gobernu Kontseiluak onartutako zerbitzuen kartaren eredu propioa ezartzea unibertsitateko antolakuntza-unitate guztietan.
- Estatutu- eta araudi-garapena burutzea, administrazio-hizkuntza errazarekin, tramitazioetan malgutasuna eta sinplifikazioa eskaintzeko, “leihatila bakarreko” kontzepturantz aurrera eginez.
- Irakasleen eta Ikertzaileen Jarduera akademiko guztiaren erregistro-sistema bat abian jartzea (irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa).
- AZPk unibertsitate-gobernantzako estrategietan parte-hartze handiagoa izatearen alde apustu egitea, besteak beste, administrazio-unitateen artean lankidetzatza sustatuz, informazio- eta komunikazio-mekanismoak ezarri, lankidetzatza eta eraginkortasun handiagoa lortzeko.
- Unibertsitate-egituren arteko lankidetzatza sustatu eta bultzatzea, eskala-ekonomia bultzatuko duten eransketak sortuz.
- Campus Anitzeko Ereduaren oinarriak abiaraztea eta ereduan sakontzea.



- Konpromiso-agirien sendotzean eta orokortzean oinarritutako baliabide zehatzen barne-esleipenaren sistema bat orokor bihurtzea.
- Kontabilitate analitikoaren ezarpen-prozesuan aurrera egitea, jarduera guztien kostuari buruzko informazio fidagarria izanik erabakiak hartzea eta kontuak ematea erraztu ahal izateko.
- Unibertsitatearen presentzia areagotzea sare sozialetan; web orria hobetzea, Unibertsitateak munduarentzat duen erakusleihu nagusi gisa, eta potentzialtasun berriak ematea.
- Komunikazio-eredu propio bat definitzea, gardentasunean, errespetuan eta hurbiltasunean oinarritua.
- ehuTALDEaren egituratze-politika garatzea, eta Unibertsitateak beste erakunde batzuetan duen parte-hartzearen ebaluazioa eta jarraipena egitea.
- Gobernu-organoetako eraketan eta ordezkartizan berdintasun-neurrien ebaluazioa, jarraipena eta, dagokionean, proposamen berriak egitea.
- Genero-ikuspegia duten aurrekontuen prestaketan aurrera egitea, modu bereizian aurkeztutako adierazle giltzarriak identifikatuz.





# 13. CAMPUS BIZIAK

UPV/EHU aurrerapausoak egiten ari da unibertsitate-kidego integralaren ereduaren garapenean, campusak bizitzeko, bizikidetzarako eta unibertsitate-jarduerako gune bihur daitezen, beharrezko azpiegituz eta zerbitzuez hornituta.

## ERRONKAK

- Campus Anitzeko Eredua garatzea, Unibertsitateko politika orokorraren esparruan.
- 2011-2014ko Urte Anitzeko Inbertsio Plana gauzatzea, Campusak Garatzeko Planean ezarritakoaren arabera.
- Ikasleen eta irakasle bisitarien ostatu-eskaera asetzea, pixkanaka.
- Garraio iraunkorra bultzatzea.
- Ikasletxeak proiektua bultzatzea; hau da, ikasleekin eta ikasleentzat diseinatutako topagune, ikasketa-gune eta aisialdi-gunea.
- Tokiko erakundeekin elkarlanean, Lurralde bakoitzaren garapenean laguntzea.

## CAMPUSETARAKO proposamenak

- Campus Anitzeko Ereduan sakontzea, Campusak beharrezko tresnez hornitu eta unitate autonomoak izan daitezen jardueren antolaketari, kudeaketari eta gauzaperari begira.
- Urte Anitzeko Inbertsio Plana gauzatzea, hiru Campusetan aurreikusitako esku-hartzeen arabera.
- Behar diren gestioak egitea unibertsitateko ostatu-eskaintza handitzeko, honako helburu hauekin:
  - Unibertsitate-egoitzetan dauden plazen eskaintza handitzea, kontzesiodun erakundeekin izenpetutako hitzarmenen bidez.
  - Unibertsitate-ostatua sortzea alokairuzko apartamentuetan, tokiko agintariekin hitzarmenak sinatu ondoren.
  - Etxebizitza Solidarioen esperientzia zabaltzea.
- Eskumenak dituzten herri-administrazioekin unibertsitate-garraioari buruzko hitzarmenak sina daitezen proposatzea.
- Ekintzailatza sustatzeko programak indartzea eta unibertsitateko spin-offetarako guneak sor daitezen sustatzea, hiru Campusetan transferentzia eta berrikuntza sustatze aldera.
- UPV/EHU gizartean are gehiago agertaraztea, udako ikastaroen bidez (Donostiako Uda Ikastaroak, Bilboko Bizkaia Bilbao Arte eta Kultura Topaketak eta Gasteizko Nazioarteko Ikastaroak).
- Ikasletxeak proiektua garatzea, topagune, lanerako gune eta denborapasa-gune gisa, Campus bakoitzeko Ikasleen Kontseiluarekin koordinatuta.
- Esperientzia Geletako ikasketa eskaintza aztertzea eta birdefinitzea hiru campusetako eskaintzari erantzuteko.
- Unibertsitate-kidegoak proiektu sozialetan eta garapenerako lankidetzaproiektuetan parte har dezan sustatzea.
- Campusak nazioartekotu daitezen sustatzea, mugikortasuna, eleaniztasuna (irakaskuntzan eta ikerkuntzan) eta atzerrira joateko praktiketako kontratuak eta bekak bultzatuta eta Campusetan entzute handiko ikertzaileak kontratatuta.
- Irakasle eta Ikertzaileentzako bidaiari-poltsak hornitzeko finantzaketarako bidea hobetzea, “leihatila bakarraren” ereduaren ezarpenaren bidez.

- Energia aurrezteko politikan aurrera egitea, besteak beste eko-kudeaketarako eta ingurumen-kudeaketa hobetzeko proiektuak gauzatuta.
- Campuseko eraikinak eta instalazioak irisgarritasun-planetara egokitzea, pixkanaka.
- EAEko Teknologia Elkartegiekin elkarlanean, arlo desberdinetako I+G+B politikak eta azpiegiturak garatzea lurralde bakoitzean.
- Errektoreordetzak, Campuseko ikastegiekin elkarlanean, Mugaz gaindiko Campusa eta Europar Batasuneko eta Latinoamerikako graduondoko programak garatzeko ekintzak sustatzea.
- Errektoreordetzak UPV/EHUren aliatu estrategikoezeko harremanak indartzea, NBC-EUSKAMPUS proiektuan.

## ARABAKO CAMPUSA

- Gizarte eta Giza Zientzien Ikergunaera eraikitzea.
- Koldo Mitxelena Liburutegia handitzea eta bertako guneak irakaskuntza-ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoaren (IKD) eredura egokitzea.
- Animaliategia eraberritzea, biosegurtasunaren 2. babes-mailara egokitzeko.
- Ikasle, irakasle eta ikertzaile bisitarientzako ostatalekuak sustatzea Gasteizko hirigune historikoan.
- Lascaray Ikergunean Elikaduraren eta Ingurumenaren Ikerketa Poloa sor dadin sustatzea, I+G+B entitateekin elkarlanean.
- Oinarri teknologikoa duten enpresen mintegia sortzea.
- Giza eta Gizarte Zientzien arloko Ikerkuntzarako Laguntza Metodologikorako Mintegi Iraunkorra bultzatzea.

## BIZKAIKO CAMPUSA

- Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen eta Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren eraikin berria eraikitzea, Basurtuko Ospitalearen inguruan.
- UPV/EHUko Zientzia Parkea garatzea, Plataforma Zientifiko-Teknologikoa, Animalia Bioteknologiarako Gunea eta Biofisika Unitatea eraikita.
- Ikertzaileentzako eta graduondoko ikasleentzako egoitza bat bultzatzea UPV/EHUko Zientzia Parkean.
- Sarriko inguruan I+G+B zentro bat eraiki dadin bultzatzea, tokiko erakundeekin elkarlanean.
- Leioa-Erandio Gunea eraberritzen jarraitzea:
- Animaliategia handitzea.
- Aparkalekuen eskaintza hobetzea.
- Errektoregoko eraikina berritzea.
- Atletismoko instalazioak berritzea eta handitzea, F-7 futbol-zelaiak eta padel-pistak eraikita.
- Ikastegietako irakaskuntza azpiegiturak hobetzen segitzea.
- Tokiko erakundeekin elkarlanean, Akarlanda parkea, UPV/EHUko Zientzia Parkea, Campusa eta Leioa lotuko dituen Eratzun Berdea sustatzea.
- Leioako eta Getxoko Udalekin elkarlanean, bizikletaren erabilera sustatzea.
- Erakundeekin elkarlanean, Leioa-Erandio Guneako garraio publikoko zerbitzuak (bereziki, tranbia) hobetzen saiatzea.

## GIPUZKOAKO CAMPUSA

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu dadin sustatzea, Unibertsitatearen eta Aldundiaren arteko harremanari buruzko gogoeta estrategikoa egin ondoren.
- Campuseko ikastegietako guneak irakaskuntza-ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoaren (IKD) eredura egokitzeko plana bultzatzea, eta, bereziki, ikastegietako liburutegiak lekualdatzean libre gelditu diren guneen egokitzapena bultzatzea.



- Prestakuntzarako eta Berrikuntzarako Balio Anitzeko Zentroa eraikitzea.
- Arlo biosanitarioko irakaskuntza- eta ikerkuntza-beharrei erantzutea ahalbidetuko duen plan bat idaztea, Erizaintza Eskolarekin eta Medikuntzako Irakasgunearekin elkarlanean.
- Gizarte eta Giza Zientzietako ikerkuntza sustatzea, Karlos Santamaria Zentroan kokatuta dauden taldeen eta institutuen jarduerari babesa emanda.
- Hitzarmen espezifikoak egitea egoitzekin, ikastetxeekin eta bereziki Talent House delakoekin, Gipuzkoako Campusean aldi batean lan egingo duten ikertzaileei bizkor eta modu eraginkorrean ostatu emateko.
- Teknologoak trebatzea helburu duten ekimenak sustatzea, Miramongo Teknologia Parkearekin eta lurraldeko spin-off enpresekin elkarlanean.
- Tokiko erakundeekin elkarlanean, Joxe Mari Korta zentroa handitu dadin bultzatzea, bertan ikerketa taldeak errazago kokatu ahal izateko.
- BicBerrilan zentroarekin harremanak indartzea eta programa berriak bultzatzea, Lurraldean oinarri teknologikoko enpresa berriak sor daitezen sustatzeko.
- Gipuzkoako Campusean ezarritako SGiker-ak indartzea eta, Campuseko ikastegiekin batera, zerbitzu berriak sortzea komeni ote den aztertzea.
- Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen eta Psikologia Fakultatearen fatxadak eraberritzea.

